

ESKAERA-GUTUNA

1. Lehenik, kokatu 2. ariketako taulako testu zatiak dagozkion kutxetan.

	DBHko 1. mailako ikasleak gara, eta jolastokiaren harira idazten dizugu, une honetan dauzkagun espazioak eta haren antolaketak ez dituelako dauzkagun beharrak asetzen, gure ustez.
	Itziar Agirresarobe Bideluize ikastetxea 01010 Extondo
	Denok dakigun moduan, azken urteetan gora egin du ikasle kopuruak, eta horren ondorioz, jolas eremua oso txikia geratu da denontzat. Futbol zelaia hartzen du leku gehiena, eta ez dugu boleibolea, pilotan... jokatzeko bestelako jolastokirik. Futbolzaleak asko diren arren, ikasle gehienak inguruko txokoetan eta pasabideetan ibili behar izaten dugu, oso espazio murriztean. Horrez gain, leku faltaren ondorioz, hainbat taldek udaleko beste kirol instalazioetara joan behar izaten dugu Gorputz Hezkuntzako orduetan. Eta joan-etorriak denbora kentzen die ordu horiei.
	DBHko 1. mailako ikasleak
	Eskaera kontuan hartuko duzuelakoan, Mila esker,
	Extondon, martxoaren 28an
	Beraz, egoera kontuan hartuta, jolastokia handitzea eta espazioa beste era batera antolatzea modu bilatzeko eskatu nahi genizuke. Inguruko baserrietatik ikastetxera egin den moduan, ohiko korrikalarien espazioaz gain, bestelako ekintzak egiteko guneak sortzea gustatuko litzaiguke; adibidez: tirrinaren bat, eskalatzeko horma, jolasteko lekua, eserita egoteko espazioa, neguan mahai-jolasetan ibiltzeko txoko itxi bat, txirristak, zabuak... Izan ere, denontzako jolastokia izatea nahi genuke, txiki zein handientzat, neska zein mutilentzat, kirolzale direnentzat zein ez direnentzat.
	Zuzendari jauna:

2. Idatzi kutxen alboan zer adierazi dugun zati bakoitzean.

ESKAERA

ARAZOAREN ETA ONDORIOEN AURKEZPENA

LEKUA ETA DATA

NORBERE BURUAREN AURKEZPENA ETA IDAZTEAREN ARRAZOIA

HASIERAKO AGURRA

SINADURA

AMAIERAKO AGURRA

HARTZAILEAREN DATUAK